

Kodaina aldamenean

Ziurrenik hiltzear egongo naiz. Hala baldin bada, oraingoan bai, nire errua izango da.

Hilabete batzuk baino ez dira igaro beste egoera kritiko bati aurre egin behar izan nionetik. Nire familia-medikuak ariketa egiteko gomendioa egin zidan, baina behin eta berriz errepikatu zidan ahaleginak neurrizkoa izan behar zuela. Hiru Handiak bakarrik egitea buruan nuela planteatu nionean, ezezko borobila eman zidan. Hori egiteko moduko egoeran ez nengoela esan zuen, buruarekin ezetz egiten zidan bitartean. “Ezta pentsatu ere; are gutxiago, bakarrik”.

Bere kezka ulertzen nuen. Medikuntzako kalbario luze baten azken uneak bizitzen ari nintzen, eta azkenean tunelaren amaieran argia hautematen nuen. Ez nengoen, ez, gehiago arriskatzeko moduan. Nire bizitzako hilabeterik gogorrenak izan ziren. Gaixotasuna abisatu gabe agertu zen, eta nire existentzia osoa egun batzuetan irauli egin zuen, den-dena hankaz gora jarrita. Adiskide bat saiatu zen ni kontsolatzen, eta esan zidan zorigaitzak, gehienetan, horrela gertatzen direla; traizioz. Baina ohartarazpen hark ez zizkidan malkoen samina arindu. Eskerrak gauzak bide onetik joan zirela. Momentuz, osasuna berreskuratu nuen, eta, horrekin batera, baita itxaropena ere.

Hiru Handiak nire kabuz egitea luzaroan irrikatutako ametsa izan da. Egun batean azaleratzen den ideia horietako bat, hain zuzen; noizbait zure buruan ezartzen dena, eta hor dirauena, setatsu, bigarren planoan bere kabuz dabilen marmar iraunkor baten antzera. Beraz, gaixotasunaren okerrera pasa ondoren, mendi ibilbideari ekiteko ideiak nire pentsamenduetan aurrera egin du, gertueneko proiektuetan leku gorena hartu arte. Une honetan bizitzak bigarren aukera bat eman dit, eta, badaezpada, aprobetxatu egin behar dut.

Azkenean, bakarkako bideari ekin diot, nahiz eta jakitun naizen egoera ez dela egokiena horrelako abentura batean abiatzeko. Gaixotasunak ez du guztiz atzera egin; ezta haren ondorio fisikoak ere. Baina oraingo honetan burugogorkeria nagusitu da nire ohiko zuhurtziaren aurrean. Egiari zor, esango nuke nire medikuak arrazoia zuela nire osasunaren hauskortasunaz ohartarazi zidanean; ados nago: hain ibilbide gogorrari ekitea ez zen zentzuduna. Halere, egia apelaezina da medikuek gorputza sendatzen dutela, baina ez arima. Beraz, ezin izan diot ezetz esan nire burmuinean erroitik sustraitutako pentsamenduari; nolabait, oihuka ari zitzaidan martxan jartzeko; kontrako argudiorik ez entzuteko; bidea zain nuen.

Nola aldatu daitezkeen gauzak segundo gutxian! Dena dela, eta harrigarria badirudi ere, une honetan ez naiz beldur. Are, gehiegizko kezkarik ere ez daukat, bizkarrean eta besaurrean sentitzen dudan min zorrotzak eragindakoa ez bada. Nire oinen azpian zegoen lurrak eman duenean, eta, ondorioz, mendian behera amildu naizenean abiatu da guztia. Ziztu bizian gertatu da, horrelako kasuetan ohikoa den bezala.

Nahiko lasai nagoen arren, errealista izan nahi dut: sastraka artean botata nago, eta bide nagusitik bi dozena metrora edo egongo naiz. Ez dirudi tarte handiegia, baina, telefono mugikorrik gabe eta garrasi egiteko indarrik gabe, nekez aurkituko nau inork.

Nire egoera onartzen hasia naiz. Denbora pasa ahala, suposatzen dut mina areagotu egingo dela. Duela hilabete batzuk kimioterapiak lehen kolpea arindu zuen modu berean, bizkarrean daramadan motxilak bigarren kolpe hau moteldu du, eta, estropezu hilgarria izan zitekeena, egoera zentzugabe baina era berean arriskutsua bihurtu da.

Idea bitxi bat daukat buruan bueltaka: esango nuke heriotza niregana hurbildu dela, eta, ezagutu nauenean, nolabait, sinpatiko iruditu natzaiola. Horregatik, ez nau eraman nahi izan lehen bueltan, eta, hori baino lehen, nirekin jolastu nahi izan du. Jolas makabroa, egia esanda, zenbaitetan, lehoiek, beren atzapar erraldoiekin harrapatutako kume bati lehen haginkada eman aurretik egiten duten jolasaren antzekoa.

Hortaz, hemen nago ni uneotan, zauriturik eta mugitu ezinean, laguntza eskatzeko aukerarik gabe. Ez dut uste hau izango denik bizitzaren bidean egindako beste ikaspen bat. Kontrara, sinetsita nago nire bizitzaren azken uneotan nagoela.

Gainerako mundutik ezkututzen nauten sastraken artean nagoela, begiak ixten ditut, pixkanaka iluntzen ari den zeru urdin bati begira egoteaz ahituta. Izan ere, dagoeneko erabat nekatuta nago nire gorputza motxilatik libratzen saiatzeaz. Nahitaez, atsedean hartu behar dut, eta hemendik onik ateratzeko zer aukera ditudan pentsatzen ahalegindu. Egiari zor, ez dut irtenbide argirik ikusten.

Erorikoaren unea errepasatzen dut nire buruan. Nindoan bidexkarekiko paraleloan zihoan haran txiki bezain ikusgarrian galduta izan dut begirada. Mendiko gidaliburuetan ia-ia aipatzen ez den toki horietako bat da; mapetan, toponimo bat izatea ere merezi ez duen zintzur xume horietako bat, hain zuzen ere. Baina, jakina, detaile txiki horiei erreparatzen dien bidaiariari horrelako altxor geografikoek une miresgarriak eskaintzen dizkiote. Kontu hauetan ere, begirada egokia izatea da gakoa.

Nire bi bastoiak alde batean utzi ditut, grabitateari desafio egiten dion zuhaitz baten enborraren kontra paratuta. Nire baitan horren bilduta egon naiz, ezen ez bainaiz konturatu amildegiaren ertzetik horren gertu nengoela. Eta, azkenean, bat-batean, amildu naiz, hainbat metro erorita, orain zaurituta nagoen toki honetan bukatu arte. “Heriotza zentzugabe bezain epikoa”; hori da, uneotan, burura datorkidan pentsamendu absurdoa. Ez da burutazio bakarra, orde. Nire bizitzako azken uneak izan daitezkeenei buruz hausnartzeko momentua da. Egia da tristeagoa izango litzatekeela ospitale bateko zainketa aringarrien ohe batean hiltzea, bizitza atzamarren artean hondarra bezala ihes egiten ari zaidala sentituz.

Begiak ireki ditut berriro, eta, atsekabe handiz, ezer ez dela aldatu egiaztatzeko moduan egon naiz. Ez da, ez, amesgaiztoa: hemen jarraitzen dut, botata, baso txiki

baten erdian, nindoan bidetik metro gutxi batzuetara. Oraintxe bertan, amorru gehien ematen didana zera da: norbait pasa daiteke lasai asko bidexkatik, baina ia-ia ezinezkoa izango da konturatu dadila ni hemen nagoela. Itxaropen bakarra da baten bat pasatzea eta erreparatzea zuhaitzaren adarraren kontra paratuta dauden makilei. Pixkanaka gaua iristen den heinean, orde, gero eta argiago daukat inor ez dela jada hemendik gertu pasako. Gainera, betazalak gero eta astunagoak sentitzen ditut. Heriotzak bere azken garaipena amets gozo baten bitartez eskuratu nahi duela dirudi.

Forma etereoak eta elkarrekin loturarik ez duten ideiak nire pentsamenduetan sartzen dira, eta ernetasunaren eta loaren arteko eremu lauso batean kulunkatzen naiz. Nire pentsamendua handik hona doazen irudien artean murgiltzen da, droga baten eraginpean bezala.

Begiak irekitzen ditut, bat-bateko hotz sentsazio batek aterata. Iluntasuna erabatekoa da dagoeneko. Begiak egoera berrira ohitzen zaizkidanean, sastraka artean geratzen diren zirrikituetatik zerrenda zurixka bat ikusten dut, perlas ziprztindua. Dir-dir egiten dute. Esne Bideak bere distira eta edertasuna erakusten ditu, harro. Gizakiok jaio eta hil egiten gara, baina funtsezko gauzek beren lekuan jarraitzen dute beti, mugitu gabe. Karlomagnok bere begiekin zeruan jarraitu zuen argi bide bera daukat nik orain nire aurrean. Lurrean gauzak erabat aldatu dira errege handiaren agintalditik hona, baina unibertsoan gertatzen diren aldaketen erritmoak ez dauka gurekin batere zerikusirik. Gauzak hala izanik ere, funtsean, gizakiok zeruari begira liluraturik jarraitzen dugu. Zenbat izango dira garaien hasieretatik heriotzaren atarian Esne Bidea ikusi izan duten gizakiak! Goian gertatzen dena behean islatzen da, eta gauza berdina gertatzen omen da kontrako noranzkoan ere. Horrela sinetsi izan da beti, historiaren hasieratik, eta horrela izaten jarraituko du betierekotasun guztian. Eta mendia da, hain justu, horretaz jabetzeko tokirik aproposena.

Bakardade ikaragarri honen erdian, zorigaitzean murgilduta nagoela, apurka-apurka bakarrik ez nagoelako irudipena sortzen ari zait. Esango nuke beste norbait dagoela nire ondoan. Sentsazioa areagotu egiten da denborak aurrera egin ahala. Begiak itxi eta irekitzen ditut; horiek mugitzen saiatzen naiz, errealitatea eta irrealtasuna bereizteko ahalegin desesperatu batean.

Presentzia areagotu egiten da. Bat-bateko artegatasun sentimendu batek jotzen nau. Beharbada nire ordua iritsi da. Begiak ireki eta aurpegia ikusten diot. Ederra da, guztiz ederra. Esne Bideko izarrak bezain zuria. Sekula ez nuen pentsatuko heriotzaren mezularia hain izaki ederra izango zenik. Seguruenera, azken pausoa emateko amarru bat izango dela burura datorkit, baina, egia esanda, une honetan, berdina zait. Zinez ederra iruditzen zait emakume baten aurpegi lausoa duen heriotza. Agian unibertsoaren erlojugileak prestatu digun analgesikoa izango da, azken unean urduritasunaren aurrean amore eman ez dezagun.

Bitxia da. Erabat lasai eta ia-ia plazerean murgilduta nagoen arren, hala eta guztiz ere, sentitzen dut ez nagoela prest behin betiko azken bidaiari ekiteko. Bizitza ederregia da

hain erraz azken agurra emateko. Dena dela, arras zaila da bake eta grabitate ezaren sentsazio atsegin horri aurre egitea, eta lurraren hoztasuna utzi eta emeka-emeka eramana izateko gogoia handiegia da.

Nire gorputza gora doala sentitzen dut, baina ez naiz beldur, badakidalako dama zuri horrek kontsolatu egiten nauela, eta abenturaren azken zati horretan bidaide izango dudala.

Soinu monotono eta sarkorra sartzen zait buruan. Zerutik zerbait jaisten dela konturatzen naiz. Itzal baten presentzia gero eta agerikoagoa da, eta burrunba, berriz, gero eta handiagoa. Bat-bateko aire zurrumbilo bat sumatzen dut aurpegian. Ahots urduriak entzuten ditut inguruan. Sentsazioa guztiz arraroa da. Oso hurbil daudela ematen du, baina urruntasunean ez ditut ia bereizten. Nire gorputza, berriz ere, mugitzen hasten da nik nahi izan gabe. Esango nuke jendea dudala nire inguruan, baina ez naiz gai inor ikusteko.

Eskuak sentitzen ditut inguruan. Mugitzen naute, eta bularrean zein hanketan zerbait estututa jartzen didatela konturatzen naiz. Burrunba ez da eteten, eta zarata sakon bat buruan iltze bat bezala sartzen zait. Haizetea horren handia da, ezen arnasa hartzeko zailtasunak baititut.

Bigarren aldiz, nire gorputza gora doala sentitzen dut. Baina oraingo honetan, jabetzen naiz zerbait dagoela nire azpian. Oso zurruna den zerbait. Ideia bat datorkit burura: ohatila bati lotu naute. Ez dakit benetan nire kabuz mugi nintekeen, baina, posible balitz ere, ez dut uste lortuko nuenik, ohatilari segurtasun banda moduko batzuek eusten didatela sentitzen baitut. Haize hotza sumatzen dut aurpegian, zirimola batean bezala. Izututa nago, baina sentsazioak baretu egiten nau espazio itxi batean sartzen nautenean. Norbaitek maskara bat jartzen dit aurpegian, eta haize freskoak biriketan sartzen zait, ustekabeko arnas gozo baten modura.

Berriro begiak irekitzen ditudanean, ingurune oso bestelako batean nagoela konturatzen naiz. Gela zuri bat da, eta etzanda nagoen ohearen inguruan hainbat kable eta hodi daudela ikusten dut. Jabetzen naiz ospitale bateko gela batean nagoela, kimioterapia saio amaigabe horiek jaso nituen gelaren antzekoa, hain zuzen. Nire gorputzaren atal gehienak lausotuta sentitzen ditut. Halere, berehala konturatu naiz burua mugi dezakedala.

Arnas sakona hartu eta irribarre bat marraztu zait aurpegian. Bidea ez da amaitu. Bizitzan gertatutako beste etenaldi bat baino ez da izan. Dozenaka mendi ditut oraindik zain; ehunka bide, urratseko. Funtsean, aukera berriak zain ditut: bidean aurkitutako dama zuri horrek ez zekarren kodainarik.